



## Kantatzen duen herria

**P**olaroid kamera batekin hiru klik, hiru egia eta hiru errealitate. Bat: Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren jasotzaileen %20 langile pobreak dira eta soldata hutsalen osagarri gisa jasotzen dute laguntza. Bi: onuradunen laurdenak pentsio miserableak osatzeko jasotzen dute. Hiru: jasotzaile guztien %45 emakumeak dira. Kamerak hartutako istant hauek oso errotuta dagoen errealitatea marrazten dute.

DSBE (Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta) honezkero sigla aski eza-guna dugu. Horrek gutariko bakoitzari iradokitzen diona, ez da kasu denetan berdina. *Euskal establishment*-a tematuta dago DSBEren irudi distortsionatua barneratu dezagun. Polaroidarekin egindako argazkiak nahi adina filtro eta trikimailurekin desitxuratu, DSBE entzuten dugunean, pentsa dezagun "iruzurra", "alferkeria", "gehiegizko aurrekontua", "lotsagabekeria", "tranpataiak" edota "bizkarroiak". Pozoia erein ostean, legitimazio osoarekin sentitu daitezen 2008an onartu zen DSBEren legeari barrenak ateratzeko.

Neurriz gorakoa ote da "barrenak atera" adierazpena? Datuek frogatuko digute ezetz, ez dela gehiegizkoa. 2018an DSBEren zenbateko orokorra 649 eurokoa zen (bakarrrik bizi den onuradun batentzat) eta pentsiodun batentzat ostera 732 eurokoa. Zenbat jasoko dute 2019 urtean? Bada, hilabete askotako

Azken hamarkadan, prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua nabarmen hazi da, %62 hain zuzen ere. Zalantzarik gabe datu horrek alarmak piztu behar dizkigu

eszenifikazio, proposamen, promesa ostean, EAjk lege proiektu bidez onartu du zenbateko orokorra %3,5 eta pentsiodunena %4,5 igotzea.

Baina ba al dakigu, 2008ko legea beteko balitz, zenbatekoak zeintzuk lirartekeen? Legea beteko balitz, zenbateko orokorra 924 eurokoa litzateke eta pentsiodunena 1.050 eurokoa. Itzulpen-gintza ariketa bat egin dezagun, translazio bat: Eusko Jaurlaritzaren lege proiekturik gabe DSBEren kopuruak %28 inguruko murrizketa izango luke 2008ko legearekiko. Onartu berri den lege proiektuarekin %25ekoa. Inongo prentsako titularretan ageri ez den eskandaluzko sarraskia!

Azken hamarkadan, prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua nabar-

men hazi da, %62 hain zuzen ere. Zalantzarik gabe, datu horrek alarmak piztu behar dizkigu: gizartearen geroz eta zati handiagoa pobrezia arriskuan dago. Duela urte gutxi DSBEren hainbat onuradun elkarrizketatzeko parada izan nuen. Haietako batek halaxe deskribatu zuen zaugarritasun egoera: "Pobrezia arriskuan egotea larritasunean egotea da, etengabe erortzeko zorian egotea da".

Babes sistema publikoan sakontzeko garaia da eta jendartea Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren baitan antolatu da. Duela urtebete inguru, Kartak prozesu legegilea (HEL) abian jarri zuen Hego Euskal Herrian, hain zuzen ere jomugan dagoen babes sistema indartzeko. 51.000 sinadura heldu dira Eusko Legebiltzarrera, baina tamalez, Legebiltzarrak argi gorria jarri dio lege proposamena tramitera onartzeari. Eztabaida sortu aurretik, isilarazi nahi izan gaituzte.

*Euskal establishment*-a ez dago zaugarritasunarekin arduratuta. Jendarte antolatuak kezkatzen du. Jendartearen beharri zenei erantzun nahi dien jendarte antolatuak larritzen du. Gobernuak oztoporik gabe atera ditu aurrera hiru lege proposamenak. Are gehiago, DSBERi dagokionez, ezkerren kontrako bozik gabe onartu da lege proposamena. Gure kantuak ez dituzte gustuko, hori badakigu. Baina, jakin ere badakigu: kantatzen duen herria, ez da inoiz hilko, ez da inoiz hilko, ez da inoiz hilko! ●



AIALA ELORRIETA AGIRRE  
EKONOMIALARIA